



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

26. Ordenantza Fiskala **Berdintasuneko administrazio-unitateak emandako zerbitzu eta** **jarduerengatiko tasak**

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Berdintasunerako Administrazio Unitateak emandako zerbitzuengatiko eta jarduerengatiko tasa ezartzen da. Ordenantza honen bidez arautuko da tasa hori, aipatutako abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan agindutakoaren arabera.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. ARTIKULUA

Zergapeko egitatea da eskainitako zerbitzuak benetan ematea eta ordenantza honetan araututako Berdintasunerako Unitate Administrazioak antolatutako jardueretan parte hartzea.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aipatzen diren erakundeak eta pertsona fisiko eta juridikoak, ordenantza honetan araututako zerbitzu edo jardueren eskatzaile edo onuradun direnak, hurrenez hurren.

IV. ZERGA-OINARRIA

4. ARTIKULUA

Zerga-oinarria ordenantza honetan araututako zerbitzuak erabiltzean sortzen da.

V. KUOTA

5. ARTIKULUA

Ondoko tarifak ezarri dira:

- Emakumeen Topaguneak antolatutako jardueren haurtzaindegi zerbitzua: 6€/orduko
- Irteera kulturalak: 5€tik 34€/hilean
- Ikastaroen irteerak: 5€tik 34€/hilean
- Ekintza kulturalak: 5€tik 34€/hilean

Berdintasunerako Unitate Administratiboak eskaintzen dituen jarduerak askotarikoak direnez, eta jarduera horiek aldatu egiten direnez kasuan kasuko programa edo kanpaina orokorraren arabera, tarifa aldakorra proposatzen da, kaxet edo kontratuaren prezioaren arabera.

VI. KUDEAKETA ETA BILKETA

6. ARTIKULUA

Hilero errolda bat egingo da, eta bertan honako datu hauek jasoko dira: ordaintzeko betebeharra duten pertsonen izenak, zerga-egoitza eta tarifak aplikatzearen ondoriozko zerga-kuota.

7. ARTIKULUA

Erroldan jasotako zergaren kuotak udal organo eskudunak horretarako onartuko duen zerga-egutegian eta Zerga Bilketako Ordenantzan agertzen diren datetan kobratuko dira.

Dagokion kuota ondoz ondoko bi hilabetez ordaintzen ez bada, kendu egingo da zerbitzua.

VII. AZKEN XEDAPENA

Berdintasunerako Unitate Administratiboaren Zerbitzu eta Jarduerengatiko Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskal hau 2025ko urtarrilaren 1ean hasiko da indarrean, behin betiko onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2024ko abenduaren 30ko 249. alean argitaratu ondoren, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.